

## II

### **Gradu amaierako lanak: ADDI-ren eta beste biltegi batzuen egitekoa**

Alcira Macías Redondo eta Amparo González de la Rúa

Teknologia berrien arloko burua Liburutegian eta  
Leioako Liburutegi nagusiko laguntzailea, UPV/EHU  
Jefa del área de Nuevas tecnologías en la Biblioteca  
y Ayudante de Biblioteca central de Leioa, UPV/EHU


**Laburpena:** Batetik, ADDI, UPV/EHUko biltegi instituzionala aurkeztuko dugu. ADDI gestio tresna bat da, gradu amaierako lana entregatzeko eta ebaluatzeko garaian ikasle eta irakasleen arteko komunikazioa errazteko sortua. Eta bestetik, biltegi instituzionalak «literatura grisa», hau da, zirkuitu komertzialetatik kanpo dauden proiektu, tesi eta ikerketa lanak bilatzeko eta eskuratzeko plataforma gisa duten zeregina aztertuko dugu. Izan ere, dokumentu horiek iturri, gida praktikoa eta eredu oso onak dira gradu amaierako lana egituratzeko eta egiteko; eta, gainera, erdietsi beharreko eskakizun maila zein den adierazten dute.

**Resumen:** Por una parte se presenta ADDI, repositorio institucional de la UPV/EHU, como una herramienta de gestión para facilitar el flujo de comunicación entre alumno y profesor a la hora de entrega y evaluación del TFG. Por otra se analiza el papel de los repositorios institucionales como plataformas de búsqueda y acceso abierto al texto completo de la antes denominada «literatura gris» proyectos, tesis, trabajos de investigación que están fuera de los circuitos comerciales pero que sin duda son verdaderas fuentes, guías prácticas, modelo y orientación para estructurar y elaborar el TFG, sin olvidar que al mismo tiempo nos indican los niveles de exigencia requerida en los mismos.

#### 1. GURE GRADU AMAIERAKO LANAK ETA NOLA KUDEATZEN DIREN ADDI-N

Gradu Amaierako Lana (GRAL) nahitaezko irakasgaia da, eta hura gainditu gabe ezin da lortu titulurik; horregatik, ikaslearen eta zuzendariaren arteko komunikazioa errazteko, UPV/EHUko liburutegiak barne ADDI izeneko plataforma bat garatu du, beraren bidez GRALa kudeatzeko xedez.

Plataforma horrek dituen abantailak ikusten hasi aurretik, ikus dezagun zer faktorek duten eragina eta bultzatzen duten GRALaren bilduma digitala sortzea.



Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua indarren sartu zenean, zeinak unibertsitateko ikasketa ofizialak arautzen baititu GHEEn (Goi-mailako Hezkuntzaren Eremu Europarrean), eta zehatzago III. kapitulua, gradu irakaskuntzei buruzkoa, zeinak honela baitio: «Irakaskuntza horiei buru emateko, Gradu amaierako lan bat egin eta defendatu beharko da», GRALa egitea nahitaezko bihurtzen da, ordura arte hala ez bazen ere. Kontuan hartu behar da, halaber, ikasketak zein urtetan ezarri ziren unibertsitateetan (lehen ikasturtea, 2008-2009); horren ondorioz, lehen GRAL bilduma digitalak 2012an hasi ziren sortzen Espainian.

Bildumen sorrera dakarren beste faktore bat da Biltegi Instituzionala (BI) heldutasun maila batera iritsi dela, eta horrek lanabes egokiena bihurtzen duela haiek artxibatzeko.

Bestalde, unibertsitateak interesatuta daude beren irakaskuntza- eta ikerkuntza-lana ikusgai jartzeko eta gorde-babesteko, hori haien izen onaren alde baitoa; horregatik egiten dira araudiak GRALak BI n sartzeko. Orobat, biltegiaren barruan kalitate-mailari eusteko, zenbait unibertsitatek, tartean UPV/EHUk, gutxienez 8ko nota lortu duten GRALak baizik ez dituzte argitaratzen irekian.

Azkenik, nahitaezkoa da GRALaren autoreak baimena ematea lana bilduman sartu eta irekian argitaratuko bada; unibertsitate batzuetan dagoeneko nahitaezkoa da baimen hori defentsa baino lehen ematea; UPV/EHU aztertzen ari da puntu hori.

UPV/EHU n GRALen bilduma digitala errazago garatzeko eta ikaslearen eta zuzendariaren arteko komunikazioa errazteko, barne ADDI izeneko plataforma sortu da; GRALaren lehen kudeaketa-fasean erabiliko da.

Plataforma horrek barne ADDI du izena, bertan gordailututako informazioa UPV/EHUko kide baimenduek baizik ez dutelako eskura izango.

Eskematikoki, prozesua honako hauxe izango da:



Lehenik, GRALa matrikulatutakoan, berari buruzko informazioa GAUR (Unibertsitateko Akademi Gestio Gaurkotua) aplikaziotik jasoko da. Besteak beste, hark esango digu nor diren egitasmoaren ikaslea eta zuzendaria (batzuetan bi zuzendari izaten dira).

Ondoren, datuak barne ADDIra transferituko dira; karga egin eta gero, posta elektronikoko bat bidaliko zaie dagokien pertsoneri, jakinaraziz has daitezkeela aplikazio horrekin lanean.

Une horretatik aurrera, ikaslearen eta zuzendariaren arteko komunikazioa bide horretatik egingo da. Ikasleak egitasmoaren bertsioak osatu ahala, ADDIra jasoko ditu, eta zuzendariak han irakurri, deskargatu edo inprimatu ahal izango ditu ebaluatzeko.

Plataforma hori (barne ADDI) oso erabilerraza da. Email bat jasotzea da erabiltzeko lehen urratsa; ondoren ikus daitekeena bezalakoa:

Subject: DSpace: Se ha creado su proyecto fin de carrera

Estimado/a *Firstname of the author*,

Se ha creado su proyecto fin de carrera en ADDI-interno y ya está disponible para que pueda complimentarlo.

El proyecto se ha creado con las siguientes características:

Título: *Title of submission*  
 Colección: *Name of collection*  
 Enviado por: *submitter's name*  
 Tutor: *Advisor's name*  
 page: [link to 'my DSpace' page](#)

Tan pronto como realice el envío, se lo notificaremos a su tutor.

¡Muchas gracias!

El equipo de [ADDI-interno](#)

Mezu horrek argi jakinarazten dio nondik datorren ikasleari (barne ADDItik), ez dadin SPAMtzat hartua izan, eta lotura bat dakar berekin orrialdera iristeko. Komunikazioa euskaraz edo espainieraz egingo da, ikasleak adierazten duenaren arabera.

Posta-mezua jaso ondoren, ikaslea sar daiteke plataforman, ez baitauka bertan erregistratu beharrik erabiltzaile berri gisa; hara iristeko, aski du urrats hauek egitea:



Lehenik «Sartu» sakatu behar da; erabiltzailea barruan dagoenez, «Pasahitza ahaztu?»-ra joan besterik ez du. Ondoren, posta-helbidea adierazi behar du, eta «Nire pasahitza ahaztu dut» botoia sakatu. Une horretan, lotura bat bidaliko zaio bere pasahitza sar dezan. Oso garrantzitsua da gogoratzea ezen bere kontu instituzionaletik lan egin behar duela (@ikasle.ehu.es), hots, UPV/EHUK ikasle guztiei emandako kontutik.


Pasahitza sortu ondoren, sar gaitezke barne ADDIn (posta-mezuan zetorren loturan sakatuz edo <http://interno.addi.ehu.es>-n sartuz). Ondoren, «Nire Dspace»-n sartuko gara, eta han ikusiko dugu gure lana kargatuta dagoela; ireki eta deskribatzen hasi besterik ez dugu egin behar.



Gure GRALaren erregistroa ireki eta gero, informazioa osatuko dugu, hots, lana deskribatzen duten metadatuak bete. Metadatu horietako batzuk, hala nola autorearen eta zuzendariaren izenak, titulua, beteta daude dagoeneko (baina akatsen bat atzemanaz gero, ikasleak aldatu egingo ditu); beste batzuk, berriz, hala nola la-

burpena, deskribatzaileak, eta abar, osatu egin beharko dira. Laburpena eta deskribatzaileak (hitz gakoak) zenbait hizkuntzatan jartzea komeni da, ingelesez besteak beste, gero errazagoa gerta dadin bilatzaileetatik informazioa eskuratzea.

Eremu guztiak grabatu ondoren, fitxategia igoko dugu. Zenbait fitxategi igo ditzakegu, eta bakoitzak zer informazio mota duen adierazi (bigarren fitxategia igotzea oso erraza da, aski da «*Beste fitxategi bat gehitu*»). Ondoren, «*Hurrengo*» sakatuko dugu eta honako lizentzia-oharpen hau agertuko zaigu:



ilan, eta legeak onartutako eperik luzeenean. Horrenbestez, materiala Artxibo Digitaleko (ADDI) best  
sun-kopiak egiteko eta materiala etorkizunerako gordetzeko.  
i utzi badizkiezu, berriz, adierazten duzu horien baimena duzula edo, bestela, eskubideak lizentzia  
etan identifikatuta eta aitortuta dagoela artxiboan utzitako materialaren edukian.

Onartzen dut lizentzia

Ez dut lizentzia onartzen

Lizentzia hori onartu egin behar da, hala jakinarazten baitu autoreak baimena ematen duela bere lana ADDIn artxibatua izan dadin. Lizentzia onartutakoan, esaten zaigu prozesua ondo burutu dela: «*Bidalketa amaitu da!*».

Une horretan, proiektuaren zuzendariak mezu elektronikoko bat jasoko du, non esaten zaion ikasleak proiektua aldatu duela eta bertsio berri bat ikuskatu behar duela. Zuzendariak onartzeko aukera izango du baldin eta dena ondo dagoela irizten badio, edo ez onartzeko aukera eta erabaki horren arrazoiak azaltzekoa, ikasleak aldatzea komeni dena alda dezan. Prozedura hori errepikatu egingo da proiektua onartu arte.

Proiektua irakurri eta ebaluatu ondoren, GRALak «oso ongi» kalifikazioa iristen badu (8ko nota) eta behar diren baimenak baditu, besterik gabe pasatuko da kanpo ADDIra.

## 2. BESTE GRAL BATZUETARAKO SARBIDEA: ERABILERA ZUZENA

Egunetik egunera, gero eta handiagoa da Internet bidez irispidean dagoen informazioa; milioika web-orri ez, milaka milioi dira dagoeneko; horregatik, informazio-iturri jakin eta kontrastatu batzuetara jotzerakoan, garrantzia du non bilatu jakiteak. Gradu Amaierako Lan bat (GRAL) egiteari ekiten diogunean eta ereduak bilatu nahi baditugu oinarritzat baliatzeko, hots, onartu eta argitaratu diren beste GRAL batzuk aurkitu nahi baditugu, unibertsitateetako biltegi instituzionaletara begiratu beharra dago nahitaez.

Hasieran, lehen biltegiak agertu zirenean instituzioen sarbide irekiko produkzio zientifikoa hedatzeko xedez, aldizkarietako artikulak, kongresuetako aktak eta abar zeuzkaten ikerkuntza-bildumak ziren, ezbairik gabe, handienak eta ospetsuenak. Baina, pixkanaka, Irakaskuntzako bildumak, non gordetzen baitira lan akademikoak, nabarmenduz joan dira unibertsitate-biltegien artean.

Ondorengo taulan, unibertsitate-biltegi batzuetako Irakaskuntza-bildumen eta lan akademikoen garapenari buruzko datu batzuk ageri dira.

Saikapena		Izena	Unibertsitatea	Dokumentu mota	Zk.
Espainia	Mundua				
1	16		U. Autònoma de Barcelona	Ikerkuntza-lanak eta ikasketamaierako proiektuak	2.296
2	17		U. Politècnica de Catalunya	Lan akademikoak (ikasketamaierako proiektuak/lanak, tesinak eta abar)	14.494
4	42		U. Complutense de Madrid	M.A.L. (Master Amaierako Lanak) eta ikasturteko lanak	939
5	46		U. de Alicante	Master amaierako lanak, Ikasketa eta Gradu amaierako lanak	29
6	69		U. Politècnica de Madrid	Master amaierako lanak, Ikasketa amaierako proiektuak	654
7	91		U. de Salamanca	Master amaierako lanak, Gradu amaierako lanak	351
8	105		U. Carlos III de Madrid	Master tesinak, Ikasketa amaierako proiektuak, GRAL	2.374
9	114		U. Politècnica de Valencia	Ikasketa amaierako lanak/proiektuak	3.520
10	117		U. de Murcia	Gradu eta Master amaierako lanak, Ikasketa amaierako proiektuak	60
34	776		UPV/EHU	Gradu amaierako proiektuak	32

Datuak: 2013ko apirila<sup>1</sup>.

<sup>1</sup> «Ranking Web Repositorios» orrian lortutako datuak; CSICeko Zibermetria Laborategiak egina da. Dokumentuen mota eta kopuruari buruzko datuak unibertsitate-biltegiek berek emanak dira.

Taulari erreparatzen badiogu, ADDI (UPV/EHUko biltegia) ez dago lehenengoan artean «Biltegien Sailkapen»ean; zergatik?, biltegi gaztea delako; izan ere, 2011n sortu zen, eta lehen postuetan dauden gehienak 2000 eta 2004 artean agertu ziren. Bestalde, ez du lan akademiko asko ere, edo gradu amaierako proiektu asko, 2012an erabaki baitzen gisa honetako produkzio akademikoa gordetzeko bildumak sortzea.

Kataluniako Unibertsitate Politeknikoko biltegia (UPCommons) da gaur egun lan akademiko argitaratu gehien duena. Aipatu beharra dago bilduma horren parte handi bat ikasketa teknikoetako Ikasketa Amaierako Proiektuek osatzen dutela; esate baterako, ingeniartzetakoek, eta ikasketa horiek lehendik zeudela behartuta Ikasketa Amaierako Proiektua aurkeztera ikasketan amaitzean. UPCommons laster hasi zen bilduma horiez arduratzen, eta erabilera-estatistikak arrazoia eman dio, bilduma hori bisitatuenean artean baitago.

Gaur-gaurkoz, GRALez bakarrik osatutako bilduma digitalak ez dira oso handiak; kontuan hartu behar da Gradu Ikasketak egin dituzten eta GRAL egin behar izan duten lehen promozioek 2012an amaitu zituztela ikasketok; bestalde, unibertsitate askotan Gradu Ikasketak pixkanaka ezarri dira, eta GRAL aurkeztu behar duten promozioak datozen urteetan aterako dira; beraz, horiek amaitu ahala, aurreikusita dago GRALek osatutako bildumak izugarri haziko direla.

*Beraz, galdera hau eginez gero:*

— Kontsulta al ditzaket sarean dagoeneko onartuta dauden beste GRAL batzuk?

*Erantzuna hau da:*

— Bai.

Lehenago, zail samarra zen horrelako literaturara sarbidea izatea eta kontsultatzea (ikasketa amaierako proiektuak, gradu amaierako lanak edo are tesiak ere), gehienetan ez baitziren argitaratzen (eta horrexegatik esaten zitzairen «literatura grisa»). Aurkeztuak izan ziren eskolara edo fakultatera joan beharra zegoen, halako dokumentazioa non artxibatzen zen ikusi (gehienetan, liburutegietan, baina ez beti), kontsulta egitea eskatu, eta, halako batean, baldin eta autoreak kontsultarako baimena emana bazuen, dokumentua eskuratzen zen.

Gaur egun, teknologia berrien aurrerapenari eta sarbide irekiko politiken hedapenari esker, errazagoa zaigu kontsultatzea geure unibertsitateko edo beste edozeinetako ikasleek egindako GRALak.

GRALek osatutako bilduma digitalerako sarbidea honela egin daiteke:


- Google Académico eta gisa horretako bilatzaileetatik.
- e-Ciencia, Recercat, Recolecta eta gisa horretako biltegi-bilatzaileetatik.
- Unibertsitateetako biltegi instituzionaletatik.

Nolanahi ere, bilaketak emaitza onik emango badu, estrategia egokia hartu behar da. Horregatik, bilaketa bati ekiterakoan, datu bat edo metadatu bat hartu behar da kontuan dokumentu-zarata saihesteko, baldin eta GRALak aurkitu nahi

baditugu: zer motatako dokumentua den; horra aintzat hartu behar dugun metadata.

Dokumentu bat biltegi batean gordetzen denean, zenbait metadatu sartu ohi dira, hau da, informazioa deskribatzen duten datu egituratuak, edo Greenberg-en hitzetan (2003), «objektu bati buruzko datu egituratuak, objektu horri dagozkion funtzioak bere gain dituztenak»<sup>2</sup>; horien zertarakoa komunikazioa besterik ez da, bilatzaileek informazioa berreskuratu ahal izan dezaten. Metadatuok «metadatu-eskemak» deritzen estandar edo deskribapen-eredu batzuen arabera daude eginda (Dublin Core, METS, MODS); biltegi guztietan erabiltzen dira estandarrok, eta Europar Batasuneko herrialdeen kasuan, OpenAire, DRIVER eta gisa horretako proiektuen bitartez emandako gidalerro eta gomendioei jarraitzen diete.

Ikus dezagun, bada, zein den dokumentu mota identifikatzeko Metadatu (Dublin Core):



Biltegi bateko dokumentu bat zer motatakoa den deskribatzen duen metadatu osoa hau da: *info:eu-repo/semantics/bachelorThesis*; GRAL bat dela esaten digun parte, berriz, hau: *bachelorThesis*.

Informazioa berreskuratzeak ez isiltasunik ez zarata dokumentalik sortu ez dezan, bilaketa-estrategia zehatz bati jarraitu behar diogu; horregatik, hizpide dugun gai honetan, GRAL bat baldin badugu eta ez beste dokumentu mota bat, hala nola artikuluak, gidak, eta abar, ezinbestekoa da zer dokumentu mota den definitzen duen metadatu sartzeari.

Ondoren, adibide bat emango dugu, *Google Académico* bilatzailetik hartua, non «bachelorThesis» sartu baitugu, zertarako eta bilaketa dokumentu motaren arabera mugatzeko; kasu honetan, GRAL bilatuko dugu:

bachelorThesis + kazetaritza + web 2.0.

<sup>2</sup> Greenberg, J. (2003). *Metadata and the World Wide Web*.



The screenshot shows a Google Scholar search interface. The search bar contains the text "bachelorThesis periodismo web 2.0". Below the search bar, it indicates "Académico" and "Aproximadamente 84 resultados (0,05 s)".

On the left side, there are filters for "Cualquier momento" (Desde 2013, Desde 2012, Desde 2009, Intervalo específico...), "Ordenar por relevancia" (Ordenar por fecha), "Buscar en la Web" (Buscar sólo páginas en español), "Incluir patentes", "Incluir citas", and "Crear alerta".

The search results are as follows:

- Quizás quisiste decir:** [bachelor Thesis periodismo web 2.0](#)
- [CITAS]** [Estrategias de comunicación para la apropiación de herramientas Web 2.0 en los procesos de comunicación interna en el CIAT](#) [PDF] de uao.edu.co  
CM Calderón Ruiz - 2012 - bdigital.uao.edu.co
- [PDF]** [... DE COMUNICACIÓN SOCIAL DEPARTAMENTO DE COMUNICACIONES PROGRAMA COMUNICACIÓN SOCIAL Y PERIODISMO SANTIAGO DE CALI 2010 Page 2 3 ESTRATEGIAS DE COMUNICACIÓN PARA LA APROPIACIÓN DE HERRAMIENTAS WEB 2.0, EN LOS ...](#)  
Citar
- [PDF]** [Pyne 2.0 el impacto de la web 2.0 sobre las empresas](#) [PDF] de upv.es  
Z Aiche - 2013 - riunet.upv.es
- [CITAS]** [... EMPRESAS 49 8 3.1. SALESFORCE CHATTER 50 8 3.2. JIVE SOFTWARE 53 9. CONCLUSIONES 56 ANEXO - VILAWEB EL USO PERIODÍSTICO DE LA WEB 2.0 58 REFERENCIAS Y BIBLIOGRAFÍA 69 INDICES 78 Page 6. 6 1 ...](#)  
Citar
- [CITAS]** [Mecanismos web 1.0 y web 2.0 para la difusión de ideologías extraparlamentarias](#) [PDF] de upv.es  
D SOLER MANSO - 2011 - riunet.upv.es
- [CITAS]** [... 3 Francés, Jorge, \(2011\). "Los políticos atentan contra el periodismo en la ley electoral". http://www.repositorio.com/columna/636/14/nacional/politica/literatura/politicos/atentan/contrapeiodismo/ley/electoral, mayo de 2011. Page 6. Mecanismos web 1.0 y web 2.0 para la ...](#)  
Citar
- [CITAS]** [Museus de Catalunya i web 2.0. estudi de casos](#) [TXT] de ub.edu  
Jl Badell - 2011 - deposit.ub.edu
- [CITAS]** [... La visita a les webs serveix per analitzar l'arquitectura de la informació, usabilitat, ús dels elements web 2.0 ... Dep. de Periodismo y de Comunicación Audiovisual, 2006, 56 p. 9 British Museum; però sí'ha considerat que quatre era prou significatiu i amb els triats també prou ...](#)  
Artículos relacionados Citar

Egokitzen al zaizkio emaitzak egin dugun bilaketari? Bai, erantzun egokia izan dugu, emaitzarik gehienak unibertsitateetako biltegiek argitaraturiko GRALak dira, Espainiakoak eta Amerikakoak.

Beste aukera bat zera da, *Bilatzaile* bat erabiliz egitea bilaketa; adibidez, *RecerCaten* sartzen bagara (Kataluniako ikerkuntzaren Biltegian), non Kataluniako unibertsitate eta ikerkuntza-zentroetako ikerkuntza-literatura biltzen baita, ikusiko dugu hasierako orrian bertan jakinarazten zaigula ikasketa-amaierako 6.715 lan/proiektu dauzkala<sup>3</sup>.

RecerCat-ek bera osatzen duten biltegietara iristeko aukera ematen digu, edota bilaketa biltegi guztietan batera egitekoa, gogoratuz ezen, hitz gakoek bidez biltzen badugu, gero «bachelor» dokumentu motaren arabera zedarritu behar dela bilaketa, zarata saihestu eta nahi den emaitza lortzeko.

*Biltegi Instituzionaletan* zuzenean bilatzea aukeratzen badugu, esate baterako: GREDOS (Salamanca Unibertsitatea), RIUNET (Valentziako Unibertsitate Politeknikoa), ADDI (UPV/EHU), eta abar. Jakin behar dugu biltegi gehienetan GRALak gordetzen dituzten bilduma gehienak IRAKASKUNTZAn daudela, «Irakaskuntza Komunitateak» direlakoetan, «Irakaskuntza-biltegi»etan... betiere instituzio horren irakaskuntzan sortzen den produkzioari eskainitako arloan.

«Ikus-entzunezko Komunikazio»ko ikasle batek jakin nahi balu ea gradu-amaierako zer lan egiten ari diren ikaskideak eta zer maila ari diren eskatzen, gradu-ikasketa horiek eskaintzen dituzten unibertsitateetako biltegiak hautatu beharko lituzke. Badakigu Valentziako Unibertsitate Politeknikoan «Ikus-entzunezko Komunikazioa» ematen dela; bilatzen dugu hango biltegia, RIUNET, sartzen gara ira-

<sup>3</sup> RecerCat-en lortutako datua (2013ko apirilean).

kaskuntza-erkidegoan eta GRALak dauden bildumara iristen gara, edota hitz gakoan arabera bilaketa egiten dugu (adibidez, Preproduktzioa), eta dokumentu motaren arabera zedarritzen.

Lehen esan dugunez, oraintxe hasi dira egiten erreperitorio asko, edo berriki sortu dituzte Gradu Ikasketetatik datozen GRALak gordetzen dituzten bildumak. Horietako bat da ADDI; dagoeneko badu barne-plataforma bat GRALa kudeatzeko eta gero kanpo ADDIra jauzi egiteko baldin eta GRALek eskatzen zaizkien baldintzak betetzen badituzte.

Oro har, ikasleen lan akademikoak irekian argitaratzeko politikei buruzko lan-ildoak norabide berean doa, Espainian ez ezik, Europa osoan; aski izan bedi aipatzea IGTUR, Utrecht-eko biltegia, zeinak lan asko baititu «Master's/Bachelor's Thesis Archive»n.

Informazio-kontsumitzaile garen aldetik, ikusi dugu bilduma horien garrantzia eta gozatu dugu sarean sarbidea izatearen abantailez; autore bilakatzeko unea iritsitakoan, ordea, zalantzak sortzen zaizkigu, eta galdezka haste gara: zergatik artxibatu gure GRALa biltegian? Ezbairik gabe, badira abantailak eta badira errezelok.

Abantailen artean, honako hauek aipa ditzakegu:

- Autorea eta instituzioa ikusgaiago bihurtzen dira. GRALaren autorea ikusgai bihurtzen da, eta ibilbide profesionalari ikerkuntzatik edo irakaskuntzatik ekiten badiu, haren izena laster agertuko da ezagutza-arlo jakin bati lotuta.
- Bide tradizioaletatik baino bizkorragoa da zabalkundea. Ez da ahaztu behar ezen lehenago, horrelako lanak kontsultatzeko, liburutegira joan eta kontsulta egitea eskatu behar zela, gehienetan ez baitziren argitaratzen.
- Babesa bermatzen du, biltegia arduratzen baita artxibaturiko bertsiok konserbatzen eta eguneratzen, zaharrituta gera ez daitezela.

Errezeloen artean, honako hauek ditugu:

- Ezjakintasuna eta mesfidantza.
- Segurantzarik eza teknologia berriak erabiltzean.
- GRALa plagiaturiko ote duten beldurra.

Abantailak eta errezelok aztertu ondoren, biak balantzan jarriz gero, lehenek dute pisu handiagoa, ez bairik gabe. Hala eta guztiz ere, plagiaturia izateko beldurra hor dago betiere. Dena den, ez da ahaztu behar obra bat sarean hedatzeak, plagiaturia izateko arriskuan jartzearekin batera, babestu ere egiten duela.

### 3. GRAL-EN BABESA SAREAN

Badira baliabide eta lanabes batzuk, GRALa babesteko erabil ditzakegunak; esate baterako: GRALa biltegian argitaratu den data, lana autore-eskubideak babesteko lizentziaz hornitzea, edo plagiaren kontrako tresnak erabiltzea. Ondoren,


banaka arakatuko ditugu baliabideok, ikusteko ea zer aukera eskaintzen dizkiguten.

Lehenik, GRALa biltegian argitaratu zeneko data dugu. Biltegiak «argitalpen-data» metadatuak sortzen du automatikoki, eta hori ezin da aldatu. Data horrek balioa du barruti akademikoan, noiz argitaratu zen frogatu beharra izanez gero.

Bigarrenik, Creative Commons lizentzia batez babestu dezakegu lana, non zehazten baitugu zer erabilera onartzen dugun gure lanarentzat, edo erabilera murizten baitugu copyright-aren ikurra jarritz.

Creative Commons (CC) lizentziak aukeratuz gero, sei konbinazioetako bat hautatu behar da; ondoren datorren grafikoan ageri da zer egiten uzten duten eta zertara behartzen duten gutxienez CCEk, eta zer konbinazio egin daitezkeen, zabalenetik estuenera:


## Creative Commonsen lizentziak



Azkenik, hor ditugu antiplagio programak; inork gure lana kopiatzen badu, aplikazio informatiko horiek horren berri emango digute; izan ere, programa horiek aztertu eta kointzidentziak bilatzen dituzte Interneten, kasuan kasuko instituzioaren datu-baseetan, tokikoetan... argitaraturik dauden dokumentuen artean.

Ondoren, programa horietako batzuen berri emango dugu. Esan behar da ezen Teknologia Berrien munduan, non era guztietako programak garatzen baitira eten-

gabe, plagioaren kontrako softwarea ez dela salbuespen bat; horregatik, gure asmoa ez da diren guztiak biltzea, baizik eta gure esku dugun lanabes mota hori eza-gutaraztea, oso baliagarria gerta baitakiguke. Esan behar da ezen, gaur-gaurkoz, ez direla guztiz fidagarriak, eta ez digutela bermatzen «kointzidentzia» guztiak aurkitzea, baina bai asko eta asko, aukeratzen dugun programaren arabera. Programa horiek lau taldetan bana ditzakegu:



Ezbairik gabe, fidagarritasun handiena eskaintzen dutenak Ez Doakoak dira, ordaindu beharrekoak; programa horiek milioika web-orri arakatzeko dituzte, baita software horiek kontratatzen dituzten instituzioen lanak gordetzeko sortutako datu-baseak berak ere. Adibidez, Turnitin-ek 20.000 milioi web arakatzeko ditu; 110.000 egunkari, aldizkari zientifiko, liburu elektronikoko; ikasleen 300 milioi lan, eta abar. Unibertsitate batek programa kontratatzen duenean, unibertsitate horretako lanak Turnitin-en DBan sartzen dira; edozein nabigatzailetatik abiaraz daiteke, eta Irakaskuntza Ingurune Birtual (IIB) askotan integratzen da; honako hauek, besteak beste: Blackboard, Moodle, Angel Learning, Sakai, eta abar. *Safe-Assign*-ek Interneten eta hainbat datu-basetan arakatzeko ditu lanak, esate baterako ProQuest-en, eta gainera bere datu-basean ere bilatzen du; tresna hori doakoa da EVE Blackboard erabiltzen duten instituzioentzat. *Compilatio*, berriz, online erabiltzen da edozein nabigatzailetatik, dokumentuak bilatu eta parteka konparatzen ditu, eta gorriz azpimarratzen du «plagio maila altua» duela jotzen duen testua.

*The Plagiarism Checker* eta *Article Checker* doako programek alderantzizko bilaketaren teknika darabilte (testu bat komatxo artean jarri eta Googlen bilatzea, ikusteko ea kointzidentziarik aurkitzen den); abantaila bat dute, testu-bloke han-

diak bilatzeko modua ematen dute Googleren bitartez, bilatzaileak ez baitu horretarako biderik ematen nahiz eta komatxo artean ipini, mugatua izaki bilatu beharreko karaktereen kopurua.

Badira beste programa batzuk, hala nola *Plagium*, doako bertsio bat eta lizentziadun beste bat eskaintzen dutenak; bien arteko aldea: lehenengoan mugatuta dago bila daitezkeen karaktereen kopurua, eta bigarrenean handiagoa da karaktere-kopuru hori. Ia berdintsu dabil *Copyscape*: doan uzten du egiaztatzen ea web bateko edukiak plagiatu diren, baina Premium bertsioan bakarrik (ordaindu beharrekoan) uzten du kopiatzen eta itsasten testu bat, ikusteko ea kointzidentziarik den azterturiko lanen artean.

Azkenik, badira beste zenbait programa doako, baina aurrez erregistratzea eskatzen dute erabili ahal izateko; halakoa da, adibidez, *CopioNIC*, espainierazko aplikazio bat, oso modu sinplean dabilena; aukera ematen du aztertu nahi den artxiboa programara igotzeko edozein nabigatzailetatik; Googlen bilatu ondoren, esaten du testuaren zer parte diren jatorrizkoak eta zer parte ez diren. *Viper Plagiarism* deskargatu eta instalatu beharreko lanabes bat da (software librea); web bidez arakutzen du testu osoa, bai eta ordenagailuan bertan biltegitutakoak ere.

Lehenago esan bezala, sorta horrek ikuspegi bat ematen du aurki ditzakegun antiplagio lanabesez; baina ez dira bakarrak, beste asko daude: Ephorus, DOCcop, PlagAware, Plagiarism Detect, PlagScan..., eta agertuko diren beste asko.

Amaitzeko, aholku bat: informazio-iturriak erabiltzen ditugunean (lanak, artikulak, eta abar), «jokamolde onen» kode bat zaindu behar dugu, hau da, gure eskubideak balira bezala errespetatu behar ditugu besteen eskubideak, erreferentzia aipatu beti, plagiorik ez egin eta zentzu komuna erabili. Ez da ahaztu behar ezen *sarbide irekiak ez duela esan nahi argitaraturik dagoen informazioa nolana ere biltzeko libre garenik*, eta are gutxiago hartaz jabetzeko.

#### 4. AIPATURIKO ONLINE BALIABIDEAK ETA WEBGUNEAK

- ADDI (UPV/EHU) <https://addi.ehu.es/>
- Dipòsit Digital de Documents de la UAB <http://ddd.uab.cat/>
- UPCommons <http://upcommons.upc.edu/>
- E-prints Complutense <http://eprints.ucm.es/>
- RUA (Univ. de Alicante) <http://rua.ua.es/dspace/>
- Archivo Digital UPM <http://oa.upm.es/>
- GREDOS (Univ. Salamanca) <http://gredos.usal.es/jspui/>
- E-Archivo (Univ. Carlos III de Madrid) <http://e-archivo.uc3m.es/>
- Riunet (Univ. Politècnica de Valencia) <http://riunet.upv.es/>
- Digitum (Univ. de Murcia) <http://digitum.um.es/xmlui/>
- Ranking Web de Repositorios <http://repositories.webometrics.info/es>
- Google Académico <http://scholar.google.es/>
- e-Ciencia <http://www.madrimasd.org/informacionidi/e-ciencia/>
- RecerCat <http://www.recercat.net/>

- *Recolecta* <http://www.recolecta.net/buscador/>
- *Igitur* <http://studenttheses.library.uu.nl/search.php?language=en>
- *Dublin Core* <http://dublincore.org/>
- *OpenAire* <https://www.openaire.eu/>
- *Driver* <http://www.driver-repository.eu/>
- *Creative Commons* <http://es.creativecommons.org/blog/>
- *Turnitin* <http://turnitin.com/>
- *Safe Assign* <http://safeassign.com/>
- *Compilatio* <http://www.compilatio.net/es/>
- *The plagiarism checker* <http://www.dustball.com/cs/plagiarism.checker/>
- *Article Checker* <http://www.articlechecker.com/>
- *Plagium* <http://www.plagium.com/>
- *Copyscape* <http://www.copyscape.com/>
- *CopioNIC* <http://copionic.citilab.eu/>
- *Viper Plagiarism* <http://www.scanmyessay.com/>
- *Ephorus* <https://www.ephorus.com/es/>
- *DOCcop* <http://www.doccop.com/index.html?nc=65286568>
- *PlagAware* <http://www.plagaware.com/>
- *Plagiarism Detect* <http://www.plagiarismdetect.com/>
- *PlagScan* <http://www.plagscan.com/es/>

## 5. BIBLIOGRAFIA

- Karrera/gradu amaierako proiektua entregatzea ADDI bitartez* (ikaslegoa). [Bertsio elektronikoa]. 2013ko apirilaren 9an lortua. Interneten eskuragarri: [http://www.informatika.ehu.es/p248-content/es/contenidos/informacion/226\\_pfc/es\\_226\\_pfc/adjuntos/DEPÓSITO%20ALUMNO.pdf](http://www.informatika.ehu.es/p248-content/es/contenidos/informacion/226_pfc/es_226_pfc/adjuntos/DEPÓSITO%20ALUMNO.pdf).
- FERNÁNDEZ CARRASCO, Francisco (2012). *Ciber-plagio y software antiplagio*. [Bertsio elektronikoa]. 2013ko apirilaren 15ean kontsultatua. Eskuragarri Interneten: <http://blogs.ua.es/si/2012/02/13/ciber-plagio-y-software-antiplagio/>.
- GREENBERG, J. (2003). «Metadata and the World Wide Web». In: BATES, M.J.; MAACK, M.N. y DRAKE, M. (ed.) *Encyclopedia of Library and Information Science*. New York: Dekker, 1876-1888. or.
- Guía del trabajo fin de grado*. [Bertsio elektronikoa]. 2013ko apirilaren 12an lortua. UPV/EHU. EUE Empresariales /Enpresa IUE. Vitoria-Gasteiz. Eskuragarri Interneten: [http://www.empresariales-vitoria.ehu.es/p227-content/eu/contenidos/informacion/emp\\_vitoria\\_oferta\\_docente/eu\\_oferta/adjuntos/GUIA\\_TFG\\_ALUMNADO.pdf](http://www.empresariales-vitoria.ehu.es/p227-content/eu/contenidos/informacion/emp_vitoria_oferta_docente/eu_oferta/adjuntos/GUIA_TFG_ALUMNADO.pdf).
- LABASTIDA I JUAN, Ignasi. (2010). «Internet, ¿una oportunidad o una amenaza para la gestión de los derechos?». *Contrastes: Revista cultural*, (57): 104-111.
- LABASTIDA I JUAN, Ignasi. (2005). «Las licencias Creative Commons en el Estado español». [Bertsio elektronikoa]. *Zehar, Revista de Arteleku-ko aldizkaria*, (57): 68-71. Eskuragarri Interneten: <http://hdl.handle.net/2445/27623>.
- MORATÓ AGRAFOJO, Yolanda (2012). «Una reflexión necesaria sobre el plagio en el EEES». [Bertsio elektronikoa]. *Revista UPO Innova*, 1: 361-368. Eskuragarri Interneten: <http://www.upo.es/revistas/index.php/upoinnova/article/view/113>

- REKALDE RODRÍGUEZ, Itziar (2011). «¿Cómo afrontar el trabajo fin de grado? Un problema o una oportunidad para culminar con el desarrollo de las competencias». [Bertsio elektronikoa]. *Revista Complutense de Educación*, 22(2). Eskuragarri Interneten: <http://revistas.ucm.es/index.php/RCED/article/view/38488>
- RIVAS, M.<sup>a</sup> Fe et al. (2012). *Taller, Difusión en Abierto: II Jornadas de Acceso Abierto*. [Bertsio elektronikoa]. ADDI, Archivo Digital de Docencia e Investigación de la UPV/EHU. Eskuragarri Interneten: <http://hdl.handle.net/10810/8862>.
- XALABARDER PLANTADA, Raquel (2006). «Las licencias Creative Commons: ¿una alternativa al copyright?» [Bertsio elektronikoa]. *UOC Papers. Revista sobre la sociedad del conocimiento*, (2). Eskuragarri Interneten: <http://www.uoc.edu/uocpapers/dt/esp/xalabarder.html>